**STEE-EILAS-**STEE-EILAS-**STEE-EILAS-**STEE-EILAS-**STEE-EILAS-**STEE-

# BADAKIZU ZER DEN TRATU TXARRA?

## Tratu txar fisikoa

Bultzatzea, iletik tira egitea, masailekoak ematea, ziztatzea, heltzea, txistua botatzea, ostikoz jotzea, hezurrak haustea, ubelduak eragitea, paretan kontra botatzea, gauzak jaurtikitzea, abortuak eragitea, armak erabiltzea, erretzea, hiltzea.

## Tratu txar soziala

Beste pertsonen aurrean tratu txar psikologikoak eragitea, kanpo harremanak ( familia, lagunak, telefono deiak ) kontrolatzea, familia, lagunarte edo gizarte-jardueretan egotea galaraztea edo derrigor egonaraztea, bere aurrean beste emakume batekin nabarmenkeriaz lakrikunkeriatan ibiltzea, lan egin edo ikastea galaraztea, seme-alaben ardura ez hartzea...

## Jazarpen sexuala

Lantokia, eskola edo antzeko eremuan, nagusitasunaz edo kidetasunaz jokatuz eta laneko edo ikasketako baldintzetan eraginez, biktimak desio ez dituen eta iraingarritzat dituen sexu-edukiko hitz, keinu edo jarrerak adieraztea.

## Tratu txar psikologikoa

Aipu gutxiesleak egitea, oihukatzea, iraintzea, gutxiestea, laidoak eragitea, indarkeriaz mehatxatzea, biktima behin eta berriz ero, tuntún edo ezgauzatzat jotzea, seme-alaben aurrean agintea kentzea, ateak eta jotzea, gustukoen dituen programak ikusten ez uztea, haren gauzak eta tiraderak ikuskatzea, haren gutunak ireki eta telefonozko elkarrizketak entzutea.

## Tratu txar ekonomikoa

Baliabide ekonomikoak bere baimenik gabe kontrolatzea, kreditu-txartela ez uztea, ondasunak saltzera derrigortzea, dirua administratzeari buruzko erabakietan parte hartzen ez uztea.

## Abusu sexuala

Biktimaren onarpenik gabe eta behartze, mehatxu edo txantaje bidez indarkeria edo beldurrarazte gabe ukitze edo antzeko harreman sexualak eragitea.

## Eraso sexuala

Indarkeria edo beldurraraztea erabiliz harreman sexualak eragitea.

**adi egon!!**